

Bilbon milla bederatzireun eta berrogeitamaboskarren Urtañilla-Ilbeltzaren ogeitamarrean, Euskaltzaindiaren etxean, Irigarai jauna maipuru dala, batu dira Mitxeleña, Villasante ta Oleaga Euskaltzainak, Arrue ta Lojendio euskaltzainordeak eta Arrutza, Garro ta Erkiaga urgazleak, gaurko deitutako batzarra egitera.

Araudizko otoitza esanaz asten da.

Lenaurreko batzar agiria irakurrik onetsia izan da.

Bart Bizkai liburutegian Lojendio jaunak "Introducción al estudio de la literatura vascongada" gaiaz eginiko itzaldi eder ta txalogaria dala-ta, batzarkide guztiak euren poza ta atsegina agertzen daue.

Sari batzaldirako artutako ipuin sortak aztertuta dagoz; eta gai oneri buruz erabagi da:

Lenengo saria, "Zuetzako aitita" deritzanarentzat.

Bigarren saria, "Euskera maite, maite, zabilz nigaz beti" atzalburua daukanarentzat.

Bakoitzaren egile nor dan ikusi da. Lenengokoarena Felix Bilbao A., Prantzizkotarra. Bigarrenarena, Juliana Azpeitia de Eskauriaza, anderea.

Gero adierazo da Donostian baituta egon diran **Euskeraren** ijekiak askatzea lortu dala. Pozik entzun da barri au. Bidaldu bekioe ijeki bana Euskaltzain eta Urgazie bakoitzari, ta enparauak salgei jarri bediz.

Urrengo aitatu da, Alfonso Irigoyen, gutuntzaintzan eta diruzaintzan Gorostiaga ta Maidagan jaunari lagunduz, Euskaltzaindiaren alde egiten dauzan lan neke-tsua. Lan ori orainarte doan egin dau. Baina batzarkide guztien eritxiz ezta egoki au. Eta berau dala-ta, Irigoyen jaun ori, Gutuntzaintza, Diruzaintza, Idazkaritza ta beste Euskaltzaindi arazoetako langille izentatzea erabaki da. Bere lan saria, urtean lau milla laurleko iru-ilebeteka ordainduta bedi. Lan orduak, ordu bete goizean al-dala amabietatik ordu batetara ta arratsaldean beste ordu bete al dala iruretatik lauretara. Ganera Euskaltzaindiaren arazoetan eginiko joan etorrietan eta beste edozelan eralgi dauana ordaindu bekio; eta bardin Euskaltzaindi-geleak atonduteko aurreratu dauana. Baita bein-beineko, Gorostiaga jauna kanpotik etorri arte eta diruzain barria izentau arte Irigoyen berak beroa gutuntzaintza ta diruzaintzaren ardurea bere.

Urrengo begiratuten da euskaltzaindi-liburutegian salgei dagozan liburu zerrenda, ta bakoitzaren salneurria zein izan leiteken aztertzen da, gai au astiro ta zeatz odozturik, banaz banazezan ezartzen jakez salneurriok.

Azkenez Bizkaiko Aldundi ta Bilboko Udalari, lenagoko euskera-ikastolak barriro jarri dagiezala eskatutea ebatzi da.

Eta beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorkaria
Nazario Oleaga